

HITZ BITAN

ISTRIPUA. Ezbeharra atzo gaueko 20:45ean gertatu zen Iruñetik Zaragozako norabidean, N-121 errepidean

Lau pertsona hil dira auto istripuz Puiun

Erredakzioa | DONOSTIA

Lau pertsona hil ziren atzo gauean auto istripuz Puiun, Nafarroan, eta beste bat zaurituta geratu zen. Ezbeharra gaueko 20:45ean gertatu zen. Autoa Nafarroako A-15 atubidean zihoan eta N-121 errepidera erori zen, Iruñetik Zaragozako norabidean. Berri agentziek jakitera eman zuten, Nafarroan gertatutako ezbeharren ondorioz autoan zihoazen bost pertsonatik lau hil egin ziren autoak su hartu zuelako.


Bosgarren pertsona bat zaurituta

Autoko bosgarren bidaiaria zaurituta suertatu zen ibilgailua A-15etik N-121 errepidera erortzean, autotik kanpora

geratu zelako kolpean. Pertsona hori Nafarroako Ospitalera eraman zuten, Iruñera.

Berri agentziek ez dute ez hildakoen eta ez zaurituaren izenik jakitera eman, senideei jakinarazteko protokoloa bete arte.

Errepide istripua Nafarroan



CRISTINA ABADIA / EFE
Suhiltzaileak autotik gorpuak ateratzen, atzo gauean.

EUSKARA. Jaurlaritzaren jarrera eta UPNko gobernuarena parekatu dituzte

Iruñeko sarrera batean gaztelania hutsez jarri berri duten bide seinale bat moztu dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Berriozar, Sanduzelai eta Merkañu lotzen dituen biribilgunean gaztelania hutsez zegoen bide seinale bat moztu zuen atzo ekintzaile batek. EGUNKARIARI helarazitako oharrek jasotzen duenez, asteartean Jean-Francois Leforten kideek Baionan egin zuten deialdiarekin bat eginez egin dute ekintza hori. «Frantzia bezala, Espainia ere bide ugari jorrazten ari da euskararen hegoak mozteko: komunikabideen bitartez gezurrak hedatzen dituzte; epaile eta poliziek sarekadak egiten dituzte eta politikariek neurri politiko genozidak bultzatzen dituzte», dio EGUNKARIARI igorritako oharrek.

Ekintzaileek igorritako oharrek dioenez, Nafarroa Garaiko politikariak «ederki ari dira PPren irakaspenak jarraitzen, euskara eta euskaldunok bizi publikotik desagerrarazteko

UPNk proposaturiko eta CDNk eta PSNk babesturiko neurri andana onartzen ari baitira».

«Dekretua baliogabetzea pozteko arrazoia al da?»

Nafarroako agintariei euskararekin duten afera «uste baino gehiago» korapilatu zaiela dio oharrek: «Jendea kalera atera zen protesta egitera, gaztelaniaz zeuden seinaleak desagertzen ari dira eta orain, gainera, epaileek dekretua baliogabetu dute». Hala ere, dekretua baliogabetzea pozteko arrazoia ote den galdetzen dute oharrean: «Gogoratu nahi baitugu forma akatsak argudiatuta bota zutela atzera dekretua eta nafarron hizkuntza eskubideak ez direla aipatu ere egiten dekretu horretan». Haien ustez, lege hori «euskaldunon eskubideak zapaltzeko tresna eraginkorrena da», eta UPNk, CDNk eta PSNk «euskaldunon kontra jotzeko bitar-

teko ugari» dituztela azpimarratzen dute igorritako oharrean.

Ibarretxeri ere kritika

Hala, Europa osoan bertako hizkuntza baten kontra jotzen duen alderdi bakarra UPN ez dela esateaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Nafarroako Gobernuaren pareko neurriak hartzen ari dela salatzen dute. «Erraza, eroso eta politikoki zuzena da Miguel Sanzen Gobernu kritikatzeko. Guk, ordea, galdera hau egin nahi dugu: Sanz euskararen etsaia da, eta Juan Joxe Ibarretxe zer da, bada?», gaineratu zuten.

Berriozar, Sanduzelai eta Merkañu lotzen dituen biribilgunean gaztelania hutsez zegoen bide seinalea moztu zuten, eta, oharrean bidez, Jean-Francois Leforten kideek Baionan egindako ekintzarekin bat egin nahi zuten modu horretan.



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS
Ekintzailea, bide seinalea moztzen.